

XAKELARI OSPETSUAK

Capablanca gazte kubatarra izan zen, Steinitz eta Lasker-en ondoren, munduko hirugarren txapelduna, 1921etik 1927ra; urte horretan, Alekhine errusiarrak irabazi zion. Hark hil arte mantendu zuen txapela, 1946ra arte, hain zuzen. Mikhail Tal-ek 22 urte besterik ez zituen Moskun Botvinnik-i, beste txapeldun handi bati, irabazi zionean.



Capablanca



Alekhine



Tal



Fischer



Karpov



Kasparov

1972an estatubatuar batek, Bobby Fischer-ek, lortu zuen munduko txapeldunaren hamaikagarren titulua, Boris Spassky-ren aurkako borroka zirrargarri eta estu baten ondoren. Fischer, baina, misteriotsuki erretiratu egin zen, eta Karpov eta Kasparov sobietarrak ari dira munduko nagusitzaren deman oraingoz. 1985eko abenduan, Kasparov txapeldun izan zen, Karpovi 24 partidako match bat irabazi baitzion, Moskun.

Xakea milaka urteko joko bat da, mundu osoan jokatua, eta pedagogia modernoak gomendatu egiten du haurren gogamen-jarduera garatzeko. Capablancak zioen xakea ordena intelektualean dela kirola ordena fisikoan den horixe: bitarteko gustagarri bat, garatu nahi den giza gorputzaren zatia lantzeko.

Liburu honetan, haurrak testu eta iruditan topatuko ditu joko noble honetan murgiltzen hasteko oinarrizko kontzeptuak.